



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2008ko abenduaren 23a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 18:38

BUKATZEKO ORDUA: 19:38

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2008ko urriaren 28an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 5/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 6/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Orioko 8. sektorean —Munto— dagoen udal futbol/sofbol zelaiaren azpiko 128 garaje itxiren salmenta adjudikatzeko prozedura arautuko duten baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen plegua.



- 5.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 4. areako —Aita Lertxundi— 4.1 Hirigintza Jarduketa Unitatearen kontzertazio hitzarmena.
- 6.- Ezker Batua-Berdeak/Aralar Udal taldeak aurkeztutako mozioa, Francisco Francori Orioko ohorezko alkate izendapena kentzeari buruz.
- 7.- Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, udal finantzazioari buruz.
- 8.- Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, Zubietako makroespexeari buruz.
- 9.- Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, azaroaren 25eko emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari buruz.
- 10.- Eusko Alkartasuna talde politikoak aurkeztutako mozioa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena betetzeari buruz.
- 11.- Onartzea, egoki bada, EAJ/PNV talde politikoak aurkeztutako komunikatua, Inaxio Uriaren erailketa salatuz.

ESAN-EGINAK

Aztergai zerrendako gaiak eztabaidatzen hasi baino lehen, alkateak hartzen du hitza eta bertaratuei jakinarazten die Bixente Lasa Karrikaburu zinegotzia (EA) izango dela Udaleko Kirol batzorde informatzailearen burua 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera.

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2008KO URRIAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharririk egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2008ko urriaren 28an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO AURREKONTUARI DAGOKION 5/2008 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 5/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak emandako txostena ikusita, eta Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak 2008ko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

- 1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 5/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egina dago eta 42.066 euroko kopurua du.
- 2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:
 - a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu hartzailetza
 - b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
 - c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
 - d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
 - e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (asteleheneetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
 - f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO AURREKONTUARI DAGOKION 6/2008 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 6/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.

Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta eskatzen du kreditua aldatzeko espediente honetan aurrekontu partida bat sartzea Orioko Herri Ikastola Kooperatiba Elkartearen alde, gastuetako 7. kapituluan eta 175.000 euroko diru-kopuruarekin, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— DBHko ikastetxe berria eraikitzeko lanen finantzazioa laguntzeko, aurrerakin gisa; adierazten du, baita ere, aurrekontu partida hori sartzen ez bada, kontrako botoa emango diola kreditua aldatzeko espedientearen onarpenari.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta bat egiten du Karmele Belasko taldekideak egin duen eskaerarekin.

Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du ahal den azkarren konpondu behar dela Muntoko ikastetxe berriaren eraikuntzaren finantzazioaren gaia.



Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du ez duela onartzen talde mistoko Karmele Belasko eta Joseba Goiburu zinegotziek egindako eskaera, gai hori, Muntoko ikastetxe berria eraikitzeko obren finantzazioarena, Udalaren 2009ko aurrekontua aztertzen denean eztabaidatu eta adostu behar delako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu hartzaileak egindako txostena ikusita eta Hazienda batzorde Informatzaileak 2008ko abenduaren 22an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

- 1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2008ko aurrekontuari dagokion 6/2008 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago eta 226.722 euroko kopurua du.
- 2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:
 - a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu hartzailetza
 - b) Espedienteaz aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
 - c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
 - d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
 - e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
 - f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedienteaz onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— DAGOEN UDAL FUTBOL/SOFBOL ZELAIAREN AZPIKO 128 GARAJE ITXIREN SALMENTA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN PLEGUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du kontrako botoa emango diola baldintza orri honen onarpenari, honako arrazoiengatik:



- 8. sektoreko —Munto— Plan Partzialak ezartzen du aparkaleku horiek publikoak izan behar dutela. Honela dio, hitzez hitz: *Tal es así, que el aparcamiento subterráneo se proyecta con el fin primordial de liberalizar los aparcamientos públicos en superficie existentes en las áreas colindantes del área de intervención urbanística A.I.U.3 “Hondartza”, en el cual se halla la playa Antilla de Orio, la cual, sobre todo en la temporada estival, dado que se halla en la vertiente cantábrica, recibe una masiva influencia de usuarios, los cuales tienen un enorme problema para encontrar suficientes aparcamientos públicos en superficie en el propio A.I.U. “Hondartza”, por lo que tienen que recurrir a los aparcamientos públicos en superficie sitios en las áreas colindantes, los cuales, a su vez, se hallan ocupados por los propios residentes en las áreas colindantes, por lo que, en consecuencia, entendemos que el aparcamiento subterráneo proyectado en el subsuelo del campo de fútbol/sofbol del sector 8 “Munto” presta servicios necesarios o convenientes para el uso del dominio público marítimo-terrestre, tal y como preceptúan el artículo 25.2 de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas y el artículo 46.1 del Real Decreto 1471/1989, de 1 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General para el desarrollo y ejecución de la Ley de Costas.*
- Orioko herritarren 1.500 sinadura inguru bildu dira, Udalari eskatzeko 8. sektoreko —Munto— aparkalekuak izatea: publikoak, ez errotatiboak eta ez doanekoak.
- Gaur egun segurtasun juridikorik ez dago, 8. sektoreko —Munto— Plan Partzialaren behin betiko onarpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsio ugari jarri dituzte-eta hainbat entitatek.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak egindako proposamena aintzat hartuta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA, egoki bada, Orioko 8. sektorean —Munto— dagoen udal futbol/sofbol zelaiaren azpiko 128 garaje itxiren salmenta adjudikatzeko prozedura arautuko duten baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen plegua; baldintza orriak honela dio, hitzez hitz:

BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ORIOKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— DAGOEN UDAL FUTBOL/SOFBOL ZELAIAREN AZPIKO 128 GARAJE ITXIREN SALMENTA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUENA.

1. artikulua. Pleguaren Helburua.

Orioko Udalak herrian dagoen aparkaleku eskasiak sortutako arazoa konpondu nahian, Orioko Muntoko 8. sektorean dagoen udal futbol zelaiaren azpiko 128 aparkaleku-plaza itxiak besterentzea erabaki du. Horretarako, plegu honen xedea honako hau da: 128 aparkaleku-plaza itxi horiek adjudikatzeko prozedura arautzea;



aparkaleku-plaza horien informazio teknikoa exekuzio proiektuak jasotzen du (salgai jarritako aparkaleku-plaza itxien planoaren eranstean da).

Toki Korporazioen Ondasun-Erregelamenduen arabera, ondare-ondasunen besterentzea enkante publiko bidez egitekoa da, baina, batetik, 128 aparkaleku-plazaren enkantea egitearen zailtasunak ikusita eta, bestalde, salmentaren helburua kontuan izanda, alegia, herriko ahalik eta herritar gehienei aparkaleku plaza bat ematea eta, beraz, espekulazio-preziorik ez bultzatzea, Orioko Udalak dauden bi aparkaleku motetako bakoitzari salmenta-prezio bat finkatzea erabaki du eta interesa duten guztien artean zozketa egitea, publizitate irizpidea eta konkurrentzia askatasuna bermatuta.

2. artikulua. Kontratuen izaera.

Udalaren eta adjudikaziodunaren arteko Kontratuen Adjudikazioa egin ondoren, salmentako kontratu pribatuaren izaera izango dute.

3. artikulua. Arauak.

1.- Baldintza-agiri honen arabera egindako kontratuaren prestakuntza, eskumena eta adjudikazioa honakoan arabera arautuko da:

a.- Plegu honetan jasotako klausulak.

b.- Urriaren 30eko Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legea eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege-Dekretuaren aurka ez doazen heinean.

c.- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

2.- Kontratuaren eragin eta amaitzeari dagokionez, Pleguetan beraietan eta Kode Zibilarren 1445 artikulua eta ondorengoek arautuko dute. Osagarri moduan, administrazio-zuzenbidearen gainontzeko arauak izango dira arautuko dutenak eta, bestela, zuzenbide pribatuaren arauak.

4. artikulua.- Lizitazioan parte hartu ahal izateko baldintzak.

1.- Lizitazioan parte hartu ahal izateko baldintzak hurrengoak dira:

- Kontratatzeko gaitasun osoa duten pertsonak izan litezke lehiatzaile, baldin eta ez badago Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan kontratuak egiteko debekuen artean aipatzen dituen arrazoiatarikoren batean.

- Halaber, euren izenean edo baimendutako norbaitek ordezkatuta egin ahal izango dute eskaintza, hartarako emandako ahalordea erabiliz.

- Adjudikazioa, kontratua eta eskritura publikoa, aurkeztutako proposamenean eskaintzaile gisa adierazitako pertsonekin emango dira.



Gainera, honako baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Herriko zergen eta udal zigorren ordainketetan egunean egotea.*
- b) Orion erroldatua izatea, plegu hauek onartzen diren egunaren aurretik.*

Eskatzaileen kopurua eskaintzen diren aparkaleku-plazen kopurua baino txikiagoa baldin bada, aukera izango dute zozketan parte hartzeko, Orion erroldatuta egon ez arren, Orion jaioak direnek edota Orion lan egiten dutenek.

5. artikulua.- Aparkaleku-plaza bakoitzaren prezioa.

Aparkaleku-plaza bakoitzak ezarria du prezioa eta bi kategoriatan sailkatzen dira:

a.- Aparkaleku-plaza itxiak (1 motakoak): 120 aparkaleku-plaza itxi, 16,50 metro karratuko azalera dutenak, gutxi gorabehera (ikus 1. eranskina: 139 zenbakitik 266 zenbakira, honako zenbaki hauek izan ezik: 139, 148, 183, 202, 203, 222, 247 eta 266).

Horien prezioa 20.000 eurokoa izango da (BEZa kanpo).

b.- Aparkaleku-plaza itxiak (2 motakoak) 8 aparkaleku-plaza itxi, 20,67 metro karratuko azalera dutenak, gutxi gorabehera (ikus 1. eranskina: 139, 148, 183, 202, 203, 222, 247 eta 266 zenbakiak). Horien prezioa 25.054,55 €-koa da (BEZa kanpo).

Lizitazio prezioan ez daude sartuta besterentze honen ondoriozko gastuak, ez eta notaritza gastuak eta Jabetza erregistroko gastuak ere. Horiek denak, Hirilur izaerako Lurren Balio Gehikuntzagatiko Zerga izan ezik, eroslearen kontura izango dira.

6. artikulua.- Fidantza.

1.- Honetan parte hartzeko lizitatuzaileek 600 euroko fidantza ezarri beharko dute KUTXAKo 2101 0176 90 0000009324 edo LA CAIXAKo 2100 7957 15 0200004349 kontu korrontean.

2.- Fidantza-egiaztagiriaren kopia bat aurkeztu beharko da proposamenarekin batera

3.- Adjudikazio-proposamenak egin ondoren, fidantzak:

a.- Adjudikazio-akordioan sartu ez diren lizitatuzaileei itzuliko zaizkie.

b.- Adjudikazio-akordioan sartu diren lizitatuzaileei atxiki egingo zaizkie.

c.- Adjudikazioaren edo kontratuaren ebazpena eragin duten lizitatuzaileenak konfiskatutzat emango dira.



7. artikulua. *Lizitaziorako argibideak, proposamenak, dokumentazioa eta aurkezteko epeak*

Kontratazioari buruzko espedientea, bai eta sotoaren planoak eta finken deskribapenak ere, Orioko Udaleko Bulego Teknikoan aztertu ahal izango dira, 08:30etik 14:30ak artean, lizitazioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 30 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epea igande edo jai-egunetan bukatzen bada, ulertuko da proposamenak aurkezteko epea hurrengo lan-egunetan bukatzen dela, 14:30ean.

Proposamenak, era berean, aurkez daitezke, azaroaren 30ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 legearen 38.4 artikuluan adierazi bezala; horretarako, aurreko idatzian adierazitako 30 eguneko epea amaitu aurretik jakinarazi beharko da, proposamena fax-ez helaraziz (943 13 02 60). Nolanahi ere, adierazitako egunetik hamar egun natural igaroz gero proposamena jaso gabe, ez da proposamenik onartuko.

Baldintza hauetako laugarren artikuluan adierazitako baldintzak betetzen dituen edonork aurkeztu ahal izango du eskaera. Pertsona bakoitzeko aparkaleku bat baino gehiago ezingo da erosi. Hala ere, eskatzaileen kopurua eskainitako aparkaleku-plaza itxien kopurua baino txikiagoa bada, pertsona bakoitzak aukera izango du bi aparkaleku-plaza itxi eskatzeko.

8. artikulua. *Prozedura.*

Lehiatzaileek kartazal bat aurkeztu beharko dute. Kartazalaren kanpoan honako testu hau idatziko da: ORIOKO MUNTOKO 8. SEKTOREKO FUTBOL ZELAIAREN AZPIKO APARKALEKU-PLAZA ITXI BAT EROSTEKO PROPOSAMENA.

Kartazalaren barruan honako agiriak sartu beharko dira:

a) *Udalak emandako eskaera inprimakia, behar bezala bete eta izenpetuta. Bertan zehaztu beharko da zein aparkaleku-plaza mota eskatu nahi den (1. motakoa ala 2. motakoa).*

b) *Lehiatzaileak bere izenean badihardu: nortasun-agiria. Beste pertsona fisiko edo juridikoren baten izenean badihardu, ordezkaritza hori egiaztatuko duen notario-ahalordea.*

c) *Garantiaren ordainketa-agiriaren fotokopia.*

- Proposamenak aurkezteak esan nahi du, baldintza-plegu honetan eta eskaintzaren zati diren gainontzeko dokumentuetan aurreikusitako guztiaren baldintzarik gabeko onarpena dagoela eta aurkeztutako datu guztien zehaztasunen erantzule aitortzen dela.

9. artikulua. *Dokumentuak kalifikatzea eta proposamenak onartzea.*



Kontratazio Mahaia honela osatuta eratuko da: Alkatea, Hirigintza batzordea osatzen duten zinegotziak eta idazkari-kontu hartzailea. Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri Udaletxe honetako iragarki-taulan emango da argitara, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Aldez aurretik, Kontratazio Mahaiak epean eta moduan aurkeztutako dokumentuak sailkatuko ditu eta hala badagokio hiru lan-eguneko epea eskainiko du antzemandako akatsak zuzendu edota proposamenenei falta zaiena eransteko.

Ondoren, eta gehienez 15 eguneko epean, eskatutako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatuko da eta onartutako eskaera-zerrenda Udal iragarki-taulan jarriko da 10 egun naturaleko epean, epe horretan aurkeztu ahal izango dira legezkiokkeen alegazioak. Epea igaro ondoren, Kontratazio Mahaiak zozketara onartutako eskaerak behin betikotzat onartuko ditu.

10. artikulua. Zozketa.

Onartutako eskatzaileen zerrenda argitaratu egingo da, alfabetoaren hurrenkeran, eta, ondoren, aparkalekuen zozketa egingo da notario aurrean, behar bezala iragarritako ekitaldi irekian.

Zozketa irekia izango da eta notario aurrean eta, zakuratze-prozeduraren bitartez, adjudikazio-hartzaile bakoitzari aparkaleku-plaza numeratu bat egokituko zaio.

Eskarien kopurua aparkalekuetarako lekuen bano handiagoa izango balitz, hasiera horretan garajea eskuratzeko aukerarik ez duten eskatzaileak itxaron-zerrenda batean jarriko dira, norbaitek garajeari uko egingo balio ere.

11. artikulua. Adjudikazioa.

Kontratazio Mahaiak Kontratazio Organoari proposatuko dio kontratuak egokitzea.

Kontratazio Mahaiaren proposamenek ez dute sortuko inolako eskubiderik eskumena duen udal organoak berari dagokion adjudikazio erabakia hartzen ez duen bitartean.

Adjudikazioaren berri adjudikazio-hartzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.

Orioko Udalak zozketa hutsik laga dezake, eskatzaileen kopurua ikusita edota interes publikoko beste edozein arrazoi dela medio.

12. artikulua. Prezioaren ordainketa egiteko eta kontratua gauzatzeko epeak.

Behin aparkalekuaren adjudikazioaren jakinarazpena egindakoan, adjudikazio-hartzaileak plegu honetan zehaztutako prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du dagokion salerosketa-eskritura publikoa formalizatzeko unean, Orioko Udalaren honako kontu zenbaki honetan: 2101 0176 90 0000009324.

Edozein arrazoiengatik, adjudikazio-hartzaileak prezioa ordainduko ez balu, hasieran ordaindutako fidantza konfiskatuko litzaioke.



13. artikulua. Udalak ohiko atzera-eskuratze eta lehentasunez erosteko eskubidea.

Orioko Udalak bere alde atzera-eskuratze eta lehentasunez erosteko eskubide bat eratuko du saldu dituen aparkaleku-plazen gainean, ondorengo idazketarekin:

"Eskritura honen bidez erosi duen aparkalekua saldu nahi izango balu erosleak agiri publiko hau sinatzen denetik hasi eta HAMAR URTEko epean, ORIOKO UDALARI jakinarazi beharko dio modu fede-emailean.

ORIOKO UDALAK, jakinarazpen fede-emaile hori egiten zaionetik hirurogei egun naturaleko epean, aparkaleku hori erosi ahal izango du. Erosketa prezioa eskritura honetan agertzen dena izango da, Kontsumoaren Prezioen Indizearen (KPI) igoera gehituta, Instituto Nacional de Estadística erakundeak, edo horren ordezeko legokeenak, dagokion Boletin Ofizialean argitaratuta, eskritura hau sinatutako egunetik hasi eta jakinarazpen fede-emailea egiten den egunera artekoa kontuan hartuta.

Jakinazpen fede-emailea egin denetik hirurogei egun igaroko balira Orioko Udalak bere esku dagoen lehentasunez erosteko eskubidea erabili gabe, erosleak aparkalekuaren salmenta berak nahi duen eran egiteko aukera izango du.

Erosleak aparkalekua salduko balu klausula honetako aurreko paragrafoetan adierazi den jakinarazpen fede-emailea egin gabe, Orioko Udalak atzera-eroste eskubidea erabili ahal izango du erosle berriaren ordezkari eskuratzeko aparkaleku hori, eta erosle horri ordainduko dio salerosketa egiten den egunetan lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu izan balu ordaindu behar izango zukeen salneurria."

Atzera-eskuratzeko eskubidea erabili ahal izango du Orioko Udalak salerosketa egin dela jakin edo haren berri izaten duenetik hasi eta hirurogei egun naturaleko epean, edozein delarik ere salerosketa hori egin eta haren berri izandako egunaren artean igaro den epealdia, betiere klausula honetako lehenengo paragrafoan aipatu den HAMAR URTEKO epealdiaren barruan gertatzen bada.

14. artikulua. Pleguaren interpretazioa.

Orioko Udalak, dagozkion organoen bitartez, interpretatu eta erabakiko ditu Plegu honetatik sortzen diren zalantza eta galderak.

Emandako botoa azaltzeko, Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du baiezko botoa eman diola baldintza-orriaren onarpenari, honako arrazoietan oinarrituta:

- Orioko herrian 168 familiak agertu dute interesa Muntoko lur azpiko garaje itxi horietako bat erosteko eta, beraz, interes orokorra jarri behar da beste edozein kontsiderazio ideologikoren gainetik.
- Udalak garaje horiek saltzeagatik lortzen duen dirua helburu sozialetarako erabili behar da: Muntoko ikastetxe berria eraikitzeko lanak finantzatzen laguntzeko, Gaztetxe berria egiteko, eta abar.



Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du guztiz bat datorrela Iñaki Garcia zinegotziak esan duenarekin, eta Udalak erantzun egokia eman behar diela aipatutako 1.500 sinadura horiei, zeren eta aukera galdu baita Arkupe elkartearekin bilera egiteko, jakiteko zein diren beren beharrak eta iristeko adostasun punturen batera.

5.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 4. AREAKO —AITA LERTXUNDI— 4.1 HIRIGINTZA JARDUKETA UNITATEAREN KONTZERTAZIO HITZARMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

2008ko azaroaren 18ko 595/2008 Alkate Dekretuaren bidez honako hau erabaki zen:

- 1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko udal planeamendurako arau subsidiarioetako 4. areako —Aita Lertxundi— 4.1 Hirigintza Jarduketa Unitatearen kontzertazio hitzarmena.
- 2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeiei eguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeiei lanegunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2008ko azaroaren 24a, 226. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez; beraz, alegazioak aurkezteko epea 2008/11/25ean hasi zen eta 2008/12/19n bukatu zen.

Alegazioak aurkezteko epe horretan alegazio bakarra aurkeztu da, Jose Maria Genova Lertxundi eta beste batzuen; alegazioan honako hau eskatzen du, hitzez hitz: *“establecer que por parte de la promotora de la gestión urbanística, en este caso la mercantil DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL, S.L. se compense económicamente a los que suscriben, determinando el plazo para tal efecto.”*

Jose Maria Genova Lertxundi eta besteak Juana Lertxundi Iturzaetaren oinordeko gisa ari dira; Juana Lertxundi Aita Lertxundi Areako 4.1 jarduketa unitatean sartuta dagoen Aita Lertxundi 20ko etxearen finkaren titularra da. Beren alegazioan honako hau adierazi dute:

- 1.- Kontzertazio Hitzarmenak jasotzen dituela Lurzoruaren eta Hirigintzaren gaineko 2006ko Legearen gutxieneko estipulazioak, baina ez duela jasotzen, Hirigintza Jarduketako Planak jasotzen duen bezala, honako estipulazio hau (hitzez hitz): *“en el caso de los locales, sus derechos serán compensados económicamente al no existir derecho a realojo”*.
- 2.- Beharrezkoa dela hitzarmenak betebeharrak hori jasotzea; bestela, hori betetzea edo ez betetzea DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SLren borondatearen baitan bakarrik geratuko delako. Gainera, kontuan hartuta jabeak kalte-ordaina jasoko duela jarduketa urbanistikotik kanpo geratzen denarengatik, ez dirudi egokia Kontzertazio Batzordean sartuta egotea eta horren gastuak ordaindu behar izatea.



- 3.- Beren eskubideak baloratzeko, Hondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordainagiriaren kopia eranstean dutela eta eskatzen dutela epe bat markatzea hitzarmenean dagozkien eskubideak ordaintzeko, zeren eta (hitzez hitz): *“teniendo en cuenta las facultades que al propietario mayoritario concede la Ley, abre la posibilidad de la práctica de despojo”*.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 27an eman zion behin betiko onarpena Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentuaren Eraberritutako Testuari (54. zenbakidun GAO, 2008ko martxoaren 17koa); dokumentu horretako 4. areako —Aita Lertxundi— fitxa urbanistikoaren bosgarren atalean, planeamenduaren eta jarduketaren baldintzak izenekoan, ezartzen da jarduketa sistema kontzertazioa izango dela area horretan planteatzen diren bi jarduketetan, bai 4.1ean eta bai 4.2an.

Kontuan hartuz ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, Birpartzelazio Proiektua da jarduketak eragindako jabeen eskubide urbanistikoaren diru ordaina baloratu eta zehaztu behar duen gestio urbanistikorako tresna; jarduketak eragindako titularrek beren jabe-izaerari eutsiko diote, Udalak Birpartzelazio Proiektua behin betikoz onartzen ez duen arte; Birpartzelazio Proiektuaren behin betiko onarpena finkoa bihurtzen denean administrazio bidean, desagertu egingo dira exekuzio unitateko partzelak eta ordaindu egin beharko dira Birpartzelazio Proiektuan ezarritako adjudikazio-akatsak.

Ikusita ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa eta kontuan hartuta Birpartzelazio Proiektua dela gestio urbanistikorako dagokion tresna 4. areako —Aita Lertxundi— 4.1 exekuzio-unitateko eskubideak eta karga urbanistikoak berdinbanatzeko, ez dago inolako lege oztoporik kontzertazio-hitzarmena behin betikoz onartzeko.

Kontuan hartuta, baita ere, Eusko Legebiltzarrak azaroaren 28an onartutako 11/2008 Legearen artikulua bakarrak ezarritakoa, non aldatu egiten den komunitatearen parte-hartzea ekintza urbanistikotik sortutako gainbalioetan eta aldatu egiten den, baita ere, ekainaren 30eko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 27. artikulua, honako ondorioarekin: erakunde publikoen ekintza urbanistikoak sortutako gainbalioan komunitatearen parte-hartzea gauzatzeko, kontsolidatu gabeko lur urbanoaren eta lur urbanizagarriaren jabeek obligazioa dute Udalari doan uzteko exekuzio eremuaren eraikigarritasun ponderatuko lurraren % 15a, urbanizazio kargetatik libre.

Ikusita aplikagarri diren lege agindu eta arauak, eta ikusita Orioko Udaleko teknikari juridikoak 2008ko abenduaren 22an emandako txostena, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzordeak eta Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2008ko abenduaren 22an emandako diktamen bateratuaren bitartez egindako proposamenez, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

- 1.- **ATZERA BOTATZEA** Jose Maria Genova Lertxundik eta beste batzuek azaroaren 19ko 595/2008 alkate-dekretuz hartutako erabakiaren kontra aurkeztutako



alegazioa, goian adierazitako arrazoietan oinarrituta. Alkate-dekretu haren bidez lehen onarpena eman zitzaion Orioko Arau Subsidiarioetako 4. areako —Aita Lertxundi— 4.1. Hirigintza Jarduketarako Unitatearen Kontzertazio Hitzarmenari.

- 2.- **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 4. areako —Aita Lertxundi— 4.1. Hirigintza Jarduketarako Unitatearen Kontzertazio Hitzarmena (2008ko azaroaren 24ko GAO, 226. zenbakia). Udalaren parte-hartzea ekintza urbanistikoak sortutako gainbalioetan % 15ean finkatzen da, Eusko Legebiltzarrak azaroaren 28an onartutako 11/2008 Legearen artikulua bakarrak ezarritakoa betez; aipatutako Lege horretan aldatu egiten da komunitatearen parte-hartzea ekintza urbanistikotik sortutako gainbalioetan.
- 3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau interesatu guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoen berri emanez.

6.- EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, FRANCISCO FRANCORI ORIOKO OHOREZKO ALKATE IZENDAPENA KENTZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

FRANCISCO FRANCORI ORIOKO OHOREZKO ALKATE IZENDAPENA KENTZEKO MOZIOA

Orioko Udalak, 1949. urteko abuztuaren 13ko udalbatzarrean, Francisco Francoren aldeko aldarrikapena egin zuen, gure herriak hari omen zion miresmena eta maitasuna adieraziz eta Espainiako Caudilloa Udalerriko Ohorezko Alkate izendatuz. Orain dela aste batzuk 33 urte bete ziren diktadorea hil zenetik, baina izendapen horrek oraindik indarrean segitzen du.

Orio 1936ko irailean okupatu zuten errepublikaren eta demokraziaren kontra altxatutako tropa militarrek. Okupazioaren ondoko egunetan herriko zenbait jendeak zigor umiliagarriak jasan zituen; urriaren 24an herritar bat asasinatu zuten Xuai gainean, Teodoro Mitxelena Zumeta. Francoren tropek izugarrikeriak egiten segitu zuten; horien artean larrienak, Euskal Herrian, Durangoko eta Gemikako bonbardaketak, izugarritzko biktima kopurua eragin zutenak. Bidegabekeriaren zerrenda horretan sartzekoak dira, bestalde, gerra bukatu ondoren ere egindako erailketak, kartzelatzeak, eta gure kulturak eta bereziki euskarak sufritu zuten jazarpena.

Aipatutako arrazoi horiengatik guztiengatik, eta eskubide zibil, politiko eta sozialak babesteagatik erail edo espetxeratu zituzten oriotar guztien oroimena berreskuratzeko, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Alkate izendapena kendu behar zaiola uste dugu. Eta, abenduaren 26ko 5/2007 legean oinarrituz, non gerra zibilean eta diktadurapean bortxa edo pertsekuzioa jasan zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen diren eta neurriak hartzeko eskatzen den, honako hau proposatzen diogu Orioko udalbatzarrari:

LEHENENGO: Francisco Francori Ohorezko Alkate izendapena kentzea, 1949ko abuztuaren 13ko akordioa baliorik gabe utziz.



BIGARREN: Errekonozimendua adieraztea Orion gerra zibilean eta Francoren diktadurapean erailak edo zapalduak izan ziren herritar guztiei.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar Udal taldeak aurkeztutako mozioa, Francisco Francori Orioko ohorezko alkate izendapena kentzeari buruz, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du gogoan hartu nahi dituela gerra zibilean eta Francoren diktadurapean Euskal Herrian eta Estatu Espainolean eraildako eta errepresaliatutako herritar guztiak; horrez gain, adierazten du Udalak 20.000 euroko diru partida sortu beharko lukeela, memoria historikoa berreskuratzeari zuzendua.

7.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDAL FINANTZAZIOARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

UDAL FINANTZIAZIOA – MOZIOA

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Lakua zein Iruñeko Gobernuek harturiko azken neurriek kolokan jartzen dute udal finantziarioa. Udalei dirua bueltatzea eskatzeak edota hurrengo urterako finantziarioa murrizteak egoera gaiztotu besterik ez du egiten baina benetako arazoa toki erakundeen finantziario sistematan dago. Eskuak loturik ditugu beste instituzio batzuek erabakitzen dutelako zein izan behar den gure finantziarioa, gure ekimen eta politikak erabat baldintzatuta daude inoiz ez dakigulako noraino izango dugun diru laguntza bat edo ez.

Eta orain, beraien zerga politika dela medio, udalei 2008an jaso dugun finantziarioatik diru kopuru handi bat bueltatzea eskatzen digutenean edota 2009rako finantziarioa modu garrantzitsu batetan murriztuko dela jakinarazten digutenean kolapso egoera batetara eramaten dituzte toki erakundeak. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008an jaso dugun finantziarioaren zati bat bueltatzea planteatzen du orain (Gipuzkoan 37 milioi euro). 2008an egin zuten aurreikuspena 458 milioietakoa bazen 2009rako 444 milioietakoa egin dute, geroago gehiago murriztu daitekeela aurreikusiz gainera. Hortaz, 2009an gure finantziarioa are eskasagoa izango da.

Inoiz baino behar gehiago ditugunean, herritarrek krisiaren ondorioak pairatzen hasiak diren egoera honetan, udalek ezin dugu dirurik bueltatu, behar duguna finantziario handiagoa da. Sortu duten kolapso egoera honetan ezinezkoa da udal batek bete behar dituenak betetzea, horrela ezinezkoa da herritarrei eskaini beharreko zerbitzuak behar bezala bermatzea, horrela ezinezko egiten digute gure udalerrietan garatu nahi ditugun politikak aurrera ateratzea.



Eta gauzak argi esan behar ditugu, Aldundiek eta Lakua zein Iruñeko Gobernuek erabaki dituzten finantziario murrizketak ez dira krisiaren ondorio bat. Zerga bidez gutxiago jaso baldin badute ez da krisiaren ondorioz, beraiek bultzatu dituzten zerga aldaketak sortu dute egoera hau. Adibide argiak ditugu enpresei edo errenta altuei begira hartu dituzten azken erabakiekin. Elkarteen Zergaren tipoak jaitea edota Ondarearen gaineko zerga desarraraztea erabaki eta horregatik bilduko dute diru gutxiago zerga bidez. Enpresaburuek ez dute etekin gutxiago izan baino askoz gutxiago ordaindu dute zerga bidez, eta egoera hori sortu duten indar politikoek ondorioak toki erakundeek ordaintzea planteatzen dute orain.

Udaletan dugun arduragatik ezin dugu horrelako planteamendu bat onartu. Gure betebeharrak nagusia herritarrekiko da. Are gehiago, pairatzen dugun krisi ekonomikoak beharrak biderkatzen dituen udal politika aktiboak bultzatu behar ditugu. Eta horretarako finantziario nahikoa behar dugu.

Finean, toki erakundeen finantziario justua, duina eta nahikoa behar dugu, eta hori exijitu behar diogu Gipuzkoako Foru Aldundiari. Udalen autonomia eta eragiteko esparrua babestu eta krisiaren aurrean eragile aktiboagoa bilakatu behar ditugu udalak. Horretarako finantziarioa behar dugu eta hori da exijitzen duguna, finantziario justua eta nahikoa.

UDAL FINANTZIAZIOA – MOZIOA

1.- Udal honek Gipuzkoako Toki Erakundeek behar duten finantziario justua eta nahikoa exijitzen dio horren arduradun duen Gipuzkoako Foru Aldundiari, horretarako FOFIM delakoaren finantziario sistema eguneratzea baino errotik aldatu behar dela aldarrikatuz.

2.- Udal honek bere autonomia eta eragiteko esparrua aldarrikatzera behartuta dago, are gehiago, herritarrek pairatzen ari diren krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egiteko udal politika aktiboagoak behar direnean.

3.- Udal honek 2008an jasotako dirutik Foru Gobernuak kopuru handi bat bueltatzea eskatzen diola ikusita zera adierazi nahi du: udal honi ezinezkoa zaio diru hori bueltatzea onartu herritarrei eman beharreko zerbitzuak eta udalerrriak behar dituen politikak kolokan jarri gabe.

4.- Udal honek, toki erakundeen finantziarioaren murrizketa Gipuzkoako Foru Aldundiak berak garaturiko zerga politikaren ondorio zuzena dela ikusita horren arduradun egitea eskatu eta 2008ko zein 2009rako finantziarioa, gutxienez, 2008ko urtarrilean zehazturiko parametroetan mantentzea exijitzen du. Eta horrekin batera, eta herritarrek pairatzen dituzten krisi ekonomikoaren ondorioei aurre egiteko, Toki Erakundeentzako finantziario lerro berezia sortzea eskatzen dio Foru Gobernuari.

5.- Onartutakoaren berri herritarrei eta komunikabideei jakinarazteaz aparte Gipuzkoako Foru Aldundiari helaraziko zaio.



Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du Iñaki Iturain zinegotziarekin (EB-B/Aralar) adostu duela mozioaren azalpen-zatia, erabilitako terminologia leunduz.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ) mozia onartzearen kontrako botoa emango duela, zeren eta Udal Finantzaziorako Foru Funtsean 'arriku konpartituaren' printzipioak agintzen baitu, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean lortutako akordioan oinarrituta; adierazten du, baita ere, Eusko Legebiltzarrak behingoz Udal Legea onar dezan eskatzen duela, udalek dauzkaten eskuduntzak zein diren argi eta garbi edukitzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, bozketa egiten da moziolari buruz, honako emaitzarekin:

Aldeko botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Abstentzio botoa ematen du Lasa (EA) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatu denez (bost baiezko boto eta bost kontrako boto), Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua agintzen duen bezala, bigarren bozketa egiten da, emaitza bera duena (bost baiezko boto, bost kontrako boto eta abstentzio bat); beraz, alkateak bere kalitateko botoa erabiltzen ez duenez, gaia **MAHAI GAINEAN** geratzen da.

8.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ZUBIETAKO MAKROESPETXEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Zubietako makroespetxeari buruz:

Aurrekariak.

- *2005eko uztaila: Donostiako alkateak, Odon Elorzak, eta Kartzela Erakundearen zuzendari orokorrak, Mercedes Gallizok, "ahal den denbora gutxienean" espetxe berri baten eraikuntza kudeatzeko bi erakunde hauek konprometitzen diren protokolo bat sinatzen dute.*
- *2005eko urria: Euskal Gobernuak aurre hitzarmen bat sinatzen du Donostiako Udalarekin eta bertan, Zubietan dituen lursailak emateko konpromisoa hartzen du, espetxea bertara mugitzea eta oraingo espetxeak okupatzen duen espazioan (Martutene) etxebizitzak eraikitzea ahalbideratuko duena. Nahiz eta badirudien akordio hau ez dagoela guztiz itxia, Euskal Gobernuak Justizia eta Etxebizitza sailetik adierazi dutenez.*



- 2006ko otsailak 23: Euskal Legebiltzarrak, Euskal Herrian Donostiako Zubietan aurreikusitako bezalako makroespexearen eraikuntzari uko egin diezaioten eskatzen diete Barne Ministerioaren banean dauden Kartzela Erakundeei. Ebazpena, hirukoaren (PNV, EA eta EB), EHAK eta Aralarren babesarekin onartzen da. PSOE eta PP alderdiek kontra bozkatzen dute.
- 2005. urtean. Makroespexearen aurkako plataforma sortzen da. Bertan Ezker Abertzaleak parte hartzen du.
- Eragina: Makroespexeak Zubietako 15 hektareatik gora lur saila beteko ditu
- Martuteneko espexeak okupatzen dituen lursailetan, etxebizitzaren eraikuntzarako eta zonaldearen berrantolaketa urbanistikorako planak badaude jada, horrelako gauzek gutxi batzuen eskuetan mugitzen dituen interes ekonomiko mamitsuakin.
- Zubietako bizilagunen interesak ez dira errespetatzen, bizi diren ingurua bezalako garrantzia duen ingurugiroarekiko errespetu gutxi duten proiektuak, eta hauen artean makroproiektu hau inposatzen saiatzen ari dira. (errauskailua, egitasmo urbanistikoak...)
- Estatuko Kartzeletako Azpiegitura eta Ekipamenduen Elkarteek (SIEPSA) Madrildik kontratatu eta adjudikatzen ditu eraikuntzak, lehiaketa publikoen bitartez. Honetan are, estatuko eraikuntza enpresa handiek dituzte abantaila guztiak. Honez gain, kartzelako instalakuntzen, kokapenen, lekuen erosketaren, obren egikeraren eta finantziazioaren ardura ere badute. Makroespexeak, diru publikoz egindako negozioak dira (espexea eraikitzeke inbertsioa: 95 milioi euro) enpresa pribatuen onurarako eginak eta eraikuntza, mantenimendua eta kartzelako kudeaketa dituztelarik honetarako ardatz.
- Ingurugiroaren ikuspuntutik ere ez dira, guk dakigula, beharrezko informea egin, inpaktu ekologikoa eta jendearengan edukiko duena aztertuz.
- Makroespexea eraiki nahi duten lekuak babes ekologiko handia du. Izan ere, Eskuzaitzeta gaur egun izadi lekua da. Azpiegitura hori eraikitzen bada txikizioa erabatekoa izango da.
- Makroespexearen aurkako plataforman mozioak aurkezteko erabakia hartu zen. Donostiako udalean IU-EB/Aralarrek mozioa aurkeztu zuten baina deskafeinatua, mamia kendu ziotelako (alderdi hauek udal gobernuan daude)
- Guk plataforman hartutako konpromisoari helduko diogu eta honekin batera marko horretan adostutako mozioa doakizue.

MAKROESPETXEEN KONTRAKO PLATAFORMAREN MOZIOA

Zubietan makroespexe bat eraikitzeke egitasmoaren aurrean, Gipuzkoako Makroespexearen Kontrako Plataformak udaletxe honi eskatzen dio honako akordioak har ditzala Zubietan makroespexea eraikitzeke egitasmoaren aurka:



- 1. Udaletxe honek espetxe eta zigor egikaritzea politika aurrerakoiagoa eta gizatiarragoa beharrezkoa dela uste du, birgizarteratzearen helburuari lehentasuna emango dion politika beharrezkoa da.*
- 2. Udaletxe bonek askatasun gabetzea bilatzen ez duten bestelako neurrietan oinarrituko den ereduak proposatzen du: zigor betetze alternatiboak toxikomanoentzat (zigorraren esekipen baldintzatuak eta zigorra ordezkatuak duten programak), gune tutelatuak zigortutako emakumeentzat eta beren kargu haurrak dituzten amentzat, gaixotasun kroniko nahiz buruko osasun arazoak dituzten presoentzat zerbitzu berezituak, espetxez kanpoko osasun guneak, komunitatearen aldeko lanak, zigor eta espetxe bitartekaritzea, lanerako eta heziketarako laguntza programak, espetxetik ateratzeko etxebizitza laguntzarako programak, birgizarteratzeko zentroak... Hauek eta beste alternatiba batzuk, gizatiarragoak, eraginkorragoak eta merkeagoak ere badira.*
- 3. Udaletxe honek adierazi nahi du ezarri nahi duten makroespetxe ereduak ez duela lehen zehaztutako helburuetako bakar bat ere betetzen, eta are gehiago, 2006ko otsailaren 23an Eusko Legebiltzarrean "Makroespetxeen desagertpenari buruz" aurkeztutako eta gehiengoz onartutako ez legezko proposamenaren kontrakoa dela.*
- 4. Horregatik guztiarengatik, udaletxe honek egungo Zubietako Espetxe Ereduaren (edo Makroespetxearen) eraikuntza egitasmoaren kontrako jarrera azaldu nahi du, eta zigor egikaritzea eredu berri baten aldekoa, eta jarrera hau Espetxe Erakundearen Zuzendaritza Orokorriari helaraziko dio.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziak, guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotzia, guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako Zubietako makroespetxeari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du ez duela parte hartu bozketan joko ez egiteagatik gaur egungo kartzela-sistemari, iruditzen baitzaio ez dela batere egokia gaur egungo premietarako; adierazten du, baita ere, beragatik balitz, gaur egun preso dauden guztiak kalera aterako lituzkeela eta, haien partez, kartzelara sartuko lituzkeela bankari guztiak eta gaur egungo krisi ekonomikoaren arduradun guztiak

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du demagogia asko egiten dela kartzela-politikaren gaiarekin eta, hemeroteke aztertzen badugu, ondorio honetara iritsiko garela: kartzela-politika egoki bat egiteko, espazio egokiak behar dira eta gizarteak sinetsi behar du horretan; bukatzeko, adierazten du guztiz bat datorrela II. Errepublikako Diputatu Kent andreak bere garaian adierazi zuenarekin: *“gorrota ezazu delitua eta errukitu zaitetz gaizkileaz”*.



9.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, AZAROAREN 25EKO EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Orioko Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

2008a hasi zenetik 5 emakume erail dituzte eta beste bat desagerturik dago. Eraso sexistaren inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuetan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexistaren areagotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpenen datuak kezkatzekoak dira. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil askok nesken kontrako indarkeria ere baliatzen dute...

Beraz, Euskal Herriko indarkeriaren diagnostikoa osatu ahal izateko datu zehatzik ez badugu ere; aipaturiko datuak oinarri hartuta, emakumeen kontrako indarkeria gure herriko arazo sozio-politiko nagusia dela ondorioztatu dezakegu.

Instituzioen aldetik, emakumeen aurkako indarkeriari aurre hartzeko martxan dauden lege, protokolo, orden eta akordio inter-instituzionalak, partzialak dira eta benetako konpromiso politikotan oinarritutako adierazpena plazaratzea beharrezkoa da.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

1.- KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz.

2.- Indarkeria aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdinetako neurriak hartu beharko ditugu kontutan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak.

3.- GONBITEA EGITEN DIE herritar guztiei, bereziki udalerriko neska eta mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, sortzen diren ekimenetan parte hartzeko gonbitea.

Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta Udalari eskatzen dio berdintasun plan irekiago bat egiteko eta, aldez aurretik, diagnostika egiteko; adierazten du, baita ere, parte hartu nahiko lukeela diagnosi horretan.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, azaroaren 25eko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako nazioarteko egunari buruz, goian jasota dagoen bezala, honako salbuespenarekin: azaroaren 25eko ekintzetan parte hartzeko deia kentzea, dagoeneko egun hori pasata dagoelako.

10.- EUSKO ALKARTASUNA UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 60. URTEURRENA BETETZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Eusko Alkartasunaren MOZIOA ORIOko Udaletxean eztabaidatzeko

Datorren abenduaren 6an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrena beteko da. Aurten Ban Ki Moon Nazio Batuen Idazkari Nagusiak Giza Eskubideak sustatzeko kanpaina bat abiarazi du; "Guztiontzako Duintasuna eta Justizia" lelopean, kanpaina horrek ekintzak antolatzeko eskatzen die pertsonai, taldeei, erakundeei eta instituzioei Giza Eskubideak ezagutarazi, sustatu, indarrean mantendu eta defenda ditzaten eta, baita ere, haien aldeko konpromiso argiak hartzearen garrantziaz ohartaraz dezaten.

Guztiok dakigu gure eremu lokalean, gure herrian, giza eskubideak mehatxupean daudela eta urratu ere urratu egiten direla; beraz, gure herrikide batzuk, gurekin bizi diren familia batzuk, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen dituen eskubideen urraketa hauen biktima dira.

Hori dela eta, Eusko Alkartasuna Udal Taldeak etengabeko omenaldia egin nahi die Giza Eskubideen urraketen biktima izan diren pertsona guztiei, bereziki beren bizitza, osotasun fisikoa zein morala edota askatasunak, mota guztietakoak, bortxaturik izan baldin badira, horretarako gure udalerrian Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari toki bat eskainiko zaiolarik haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren adierazle gisa eta, baita ere, hori urratzearen injustizia pairatu duten guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.

Ondorioz, osoko bilkurari honako akordio hau har dezala proposatzen diogu;

1.- Instituzio bezala, giza eskubideekin daukagun konpromisoa berritzeko konpromisoa hartzen dugu eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin bat, beren unibertsaltasuna, zatiezintasuna eta elkarrekiko mendekotasuna defendatzekoa ere.

2.- Defentsa hau gure eguneroko lan instituzionalaren parte izango da, horretarako beharrezkoak diren baliabideak ezarriz eta biktimei eta mundu osoan Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde lanean ari diren giza eskubideen defendatzaileei lagunduz.



3.- Gure udalerriko leku publiko bat kale, plaza edo parkea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalari eskaintzea, izen hori ipiniz eta plaka edo oroigarri bat jarritz, haren defentsaren eta sustapenaren aldeko gure konpromiso aktiboaren adierazle gisa eta, baita era, hori urratzearen injustizia pairatu duten pertsona guztiei omenaldi, ordaintza, errespetu eta aitortzaren sinbolo moduan.

4.- Ekitaldi horretara herritarrak gonbidatzea beren parte hartzearekin Giza Eskubideen aldeko konpromiso kolektiboa indar dadin, udalerrri honetan bizi garen guztiontzat Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bat egiteko topagune bihur dadin eta bakean eta askatasunean eraikitako etorkizun baten bermea izan dadin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Eusko Alkartasuna talde politikoak aurkeztutako mozioa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrenari buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du talde mistoko zinegotziek abstentzio botoa eman dutela ez dutelako garbi ikusten zein den mozioaren helburua; adierazten du, baita ere, oso mozio orokorra dela eta gustatuko litzaiekeela konketuagoa izatea eta giza eskubideekin konprometituagoa.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du berari ere mozio orokorra iruditzen zaiola eta proposatzen duela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oroipena egiteko gune publikoaren izena honako hau izatea: "Juan Priederen Giza Eskubideen plaza".

11.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO KOMUNIKATUA, INAXIO URIAREN ERAILKETA SALATUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Komunikatuak honela dio, hitzez hitz:

INAXIO URIA REN ERAILKETA SALATZEKO KOMUNIKATUA

Inaxio Uria Mendizabal eraikitzaile azpeitiarraren aurka buruturiko atentatu doilor eta higuigarriaren aurrean, Orioko Udalak honakoa onartu eta publiko egitea erabaki du:

1.- Gure gaitzespenik irmoena adierazi nahi dugu hilketa honengatik, beste behin ETAREN zentzugabekeria eta izugarrikeria gure gizartean ezartzeko saiakera erakusten duena.

2.- Gure elkartasuna eta samina adierazten diegu Inaxio Uria Mendizabalen familiari eta Altuna eta Uria enpresako langile eta zuzendariei. Une latz hauetan enpresa honek gure herrialdearekin duen lotura gogorarazi nahi genuke,



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura
2008/12/23

eskualdeko bizilagunentzat egin izan diren oinarrizko ekipamendu askoren egile izan dira, herriaren garapen eta modernizazioan lagundu dute eta laguntzen jarraitzen dute.

3.- Hilketa honek oinazea eta nahigabea eragiten ditu gugan, eta horrek izuaren arrazoirik ezaren biktima direnei besarkada bat bidaltzera bultzatzen gaitu.

4.- Gure gizartean ez dago indarkeriarentzako eta terrorismoarentzako lekurik, heriotza eta suntsipena besterik eragiten ez dutelako. Ezta hori goraiatzen eta defendatzen duten guztientzat ere. Euren idealak azaltzeko indarkeria hautabide bakar bezala erabiltzen dutenak ezin dira inoiz kontuan hartu herri baten bizitzan, eta are gutxiago ezein ideia politikoren defendatzaile gisa.

5.- Horregatik, gure gaitzespena azaldu nahi dugu, beste behin ere, ETA talde terroristaren aurrean, eta berehala desagertzeko eskatzen diogu Orioko Udalaren izenean. Bakea bakarrik nahi dugu euskal herritarrok. ETAk bere aldetik armak berehala eta inolako baldintzarik gabe uzteak bakarrik itzul dezake, gaur, aipaturiko itxaropena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak, guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa) zinegotziak, guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA EAJ/PNV talde politikoak aurkeztutako komunikatua, Inaxio Uriaren erailketa salatuz, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,